



Hau da aste honetako euskararen pilula!

"Declaración responsable" euskaraz, nola?

Declaración responsable > erantzukizunpeko adierazpen

Erantzukizunpeko deklarazio ez da zuzena, ez eta **erantzukizunpeko aitortpen ere**.

DEFINIZIOA

Horrela definitu zen 2018ko Hirigintza Zuzenbidea Hiztegian: "Interesdunak sinatutako dokumentua; haren bidez, indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak betetzen dituela adierazten du interesdunak, bere erantzukizunpean".

ADIBIDE BATZUK

- "Si no pudiese aportar alguno de los documentos indicados en las letras a) a d), podrá sustituirlo mediante una **declaración responsable** que incluya la justificación expresa de los motivos, relacionados con las consecuencias de la crisis del COVID-19, que le impiden tal aportación." > "a) letratik d) letrara aipatutako dokumenturen bat aurkeztu ezinez gero, **erantzukizunpeko adierazpen** bat aurkeztu ahal izango da; adierazpen horretan, espresuki justifikatuko dira dokumentua aurkeztea eragozten duten zioak, COVID-19aren krisiaren ondorioekin lotutakoak."
- "**Declaración responsable** de la persona solicitante relativa al cumplimiento de los requisitos exigidos para considerarse sin recursos económicos suficientes según el RDL" > "Eskatzailearen **erantzukizunpeko adierazpena**, ELDrekin bat etorri ekonomia-baliabide nahikorik gabetzat jotzeko galdatutako betekizunak betetzen dituela adierazten duena"

ITURRIA

- [Epaitegietako lexikoa eta eredu judizialak](#)
- Epaibar
- [Euskalterm](#)
- Euskaltzaindia (2018). Euskara Batuaren Eskuliburua (EBE)